

ESTIBAUS



— ALTZAKO HISTORIA MINTEGIAREN buletina – 45. zenb. / 2015 —



www.estibaus.info



AHM –ALTZAKO HISTORIA MINTEGIA
Lau-Haizeta 21-3.A 2017 ALTZA
(+34) 649 496 607
ahm@altza.net
www.altza.net

ESTIBAUS
2015
45. zenbakia

AHMko batzordea:
ANTXON ALFARO
ANGEL CALVO
JAVIER CANTERA
IÑIGO LANDA
MARIBEL MANZANO
JON SERRANO

Azaleko argazkia: SEBASTIÁN NAVARRETE
Atzeko azaleko argazkia: MERCHE FROIZ

Lege gordailua: SS103/97
Fotokonposaketa: Zirrimarra estudio grafikoa
Inprimaketa: Leitzaran grafikak, S.L.

AURKIBIDEA / ÍNDICE

- 3.** 2015ean Estibaus blogean argitaratutako artikulak
Artículos publicados en el blog Estibaus en 2015
- 30.** AHMren jarduerak 1986-2015
Actividades de AHM 1986-2015
- 43.** Memoria 2015

Aurkezpena

Aurten Altxako Historia Mintegiak hogeita hamar urte beteko ditu, kopuru borobila hor nonbait eta aitzaki ona denbora tarte horretan egindakoari begiradaxo bat emateko eta, aldi berean, gure ekarpenak egiten jarraitzeko gogoak berritzeko. Buletin honek horren isla izan nahi du.

Estibaus orain dela 20 urte sortu zen, lau orrialdeko buletin xume gisa, eta denboraren poderioz, 2008. urtean, Internetera salto egin eta blog bat bihurtu zen. AHMk bere garaian bere produktuak gordezteko eta ezagutarazteko digital munduaren alde egindako apustua –aitzindaria Altxan– argi eta garbi geratu da zuzena izan zela, baina jakin badakigu gure bazkide eta gure gaiekin interesaturik dagoen jende askok, arrazoi batetik edo bestetik, ez dauka modurik eduki hauek eskuratzeko. Horregatik, zazpi urte geroago, berriro heldu diogu paperezko argitalpenari, itxura berriarekin eta urtekari bihurtua. Estibaus blogean bildutako artikulua gehienak euskaraz zein gaztelaniaz irakur daitezke. 2015. urtean argitaratutako 39 sarreretatik, hiru soilik gaztelaniaz daude, zazpi soilik euskaraz, eta gainontzekoak –galegoz idatzita dagoena salbu– batean zein bestean irakur daitezke. Paperean, ordea, leku faltagatik, artikulua bakarrik hizkuntza batean jarri ditugu, eta blogean beste hizkuntzan ere irakurtzerik baldin badago dagokion izenburua eta ikur bat gehituz adierazi dugu. Buletinaren argitalpenak bat egingo du elkartearen Urteko Batzarrearekin eta horretaz baliatuko gara 2015. urteko memoria eta 2016. urterako egitasmoa aurkezteko. Horrez gain, hogeita hamargarren urteurrena denez, denbora tarte luze horretan AHMren ekinak eta jarduerak jasotzen duen laburpen bat gehitu dugu.

Zuen gustukoa izango delakoan gaude.

Presentación

En 2016 Altxako Historia Mintegia cumplirá treinta años, un número redondo que invita a echar un vistazo al recorrido realizado y seguir caminando ofreciendo nuestras aportaciones. Este boletín es un reflejo de todo eso.

Estibaus nació hace 20 años como un sencillo boletín trimestral de cuatro páginas para posteriormente, en 2008, saltar a Internet y convertirse en un blog. La apuesta por lo digital que hizo en su día AHM –pionera en Altxa– para guardar y divulgar los contenidos producidos por la asociación ha quedado sobradamente demostrado que fue acertada, pero sabemos también que muchos socios, socias y gente interesada en los temas que tratamos, por uno u otro motivo, no tienen acceso a ellos, por lo que hemos retomado siete años después la publicación en papel de sus contenidos en un nuevo formato y periodicidad anual.

La mayor parte de los contenidos del blog Estibaus se pueden leer tanto en euskara como en castellano. En 2015, de las 39 entradas, tres están solo en castellano, 7 solo en euskara, y el resto –salvo una redactada en gallego– se pueden leer en uno u otro idioma. Por cuestión de espacio, aquí las hemos publicado solo en uno de ellos, añadiendo la traducción del título con un símbolo en los casos que cuenten en el blog con la versión en el otro idioma.

La publicación del boletín la haremos coincidir con la Asamblea Anual de la asociación, por lo que aprovecharemos para presentar en sus páginas la memoria de actividades del año 2015 y el plan para 2016, y, como además celebramos el treinta aniversario, hemos incluido también un resumen de las iniciativas y realizaciones de AHM en todo ese tiempo.

Esperamos que os guste.



www.estiba.us.info



Jolastokieta, kirol elkarteak

Sociedad deportiva Jolastokieta (🖨)

Iñigo Landa

Tokiko Bilduma, 2015-01-05

Jolastokieta 'kirol anitzeko' elkarteak 1914. urtean hasi zuen bere jarduna Altzako Herrera auzoan.

Elkartearen instalazioak Herrerako harrobiaren eremuan eraiki ziren, Sastrearena izenarekin ezagutzen zen lekuan. Egoitza nagusia hiru solairuko eraikin batean zegoen, eta bertan aldagelak, kafetegia, jatetxea, hainbat areto eta zaintzailearentzako etxebizitza. (1) (6)

Atzealdean, eraikinari itsatsia, pilota lekua zegoen, bi pareta eta hamalau koadro luze. Hirugarren pareta bat ere bazegoen bereizirik, erreboterako, Altzagainara doan aldapan, egungo San Ignazio galtzada ondoan. (1) (8)

Egoitzaren mendebaldean, Vista Alegre (Tantarrene) etxearen eta Arrobi (La Cantera) auzoaren artean, futbol zelaia zegoen, atletismo-pista bezala ere erabilia izan zena. Hegoaldean ikusleentzako harmailak zeuden. (7)

Jolastokieta Elkartearen lehen jardueraren notizia 1914ko urtarrilaren 11koa da, egun horretan egin baitzen Espainian ezagutzen den aurreneko lasterketa landan zehar, Jolastokieta Elkartek antolatutik. (2)

Zazpi hilabete beranduago, 1914ko uztailaren 31n, Herrerako instalazioetan nolabaiteko 'olimpiada' bat antolatu zen, Gipuzkoako atletismoaren abiapuntutzat hartu izan dena. (14)

1916ko martxoaren 11n, Gipuzkoako beste elkarteekin batera, Gipuzkoako Atletismo Federaziaren sorreran parte hartzen du. (2)

Atletismoaz gain, bere futbol taldeagatik ere ezaguna izan zen Jolastokieta Elkartea. 1915. urtean, Euskadi mailan jokatu zen futbol txapelketan parte hartu zuen, Bizkaiko Athletic Club de Bilbao, Arenas eta Arriñ Sport, eta Gipuzkoako Real Racing Club eta Irun Sporting Club taldeekin batera. (3)

Futbolarekin jarraituz, Tarrasa F.C. talde katalanaren aurka jokatu zuen, 1915ko uztailaren (10), eta urte bereko azaroan 3 eta 0 irabazi zion Bilboko Athletic taldeari. (5)



Jolastokieta (Album Picavea)



Jolastokieta futbol-taldea (Kutxa Fototeka)

Jolastokieta Elkartek "soka-tira" kirolean ere ospea lortu zuen, izan ere 1915ko apirilaren 18an Atotxako futbol-zelaian egin zen hamabi gizoneko talde lehiaketan txapelduna izan zen. (5)

1929-1936 urte bitartean, Real Sociedad klubaren emakumezkoen hockey taldeak Atotxan entrenatzen bazuen ere ohikoa zen bere partidak Jolastokietan jokatzea. (5)

1933ko ekainaren 16an uholde ikaragarriak izan ziren Herreran eta hiru pertsona hil ziren. Herritarren elkartasuna adierazteko eta kaltetuei diruz laguntzeko, kultura eta kirola uztartuz jaialdi bat antolatu zen uz-

tailaren 16an, igandea, Jolastokietako zelaian. Arrakasta handia izan zuen herritarren artean eta prentsari geratu da jaso. (11) (12) (13)

Jolastokietako lur-eremuan RUTILITA enpresaren paper-orea egiteko lehen lantegia eraiki zen 1940. urtean. Aurrerago fabrika hau gehiago zabaldu zen, 1941 eta 1958 urteetan, eta beste batzuk etorri ziren Jolastokietaren eremu osoa bete arte, hala nola ZARDOYA OTIS 1958ean eta OXIGRAF 1960an. (15)

Lardi-aundi (Larrerdi) baserriaren lurretan, Jolastokieta ondoan, etxebizitza multzo handi bat eraiki zen 1977. urtean, Jolastokieta izen bera daraman auzunea, eta bertan sortu da egungo CSCRD Jolastokieta elkarte.



Futbol-zelaia (Kutxa Fototeka)



Pilotariak Jolastokietan 1914-05 (Cesar Estornés)



Pilota-lekua (Landa-Jaka familia)

- (1) KORTAJARENA, Andoni: "Herreratar zaar baten bizikaskizunak" In: Hautsa Kenduz II (1994), 9-21 orr.
- (2) Real Federación Española de Atletismo www.rfea.es 2007-07-30: "Cien años de atletismo en Guipúzcoa"
- (3) "El football en el País Vasco", In Euskalerriaren Alde, nº 106 (1915), 318-319 orr.
- (4) El Diario Vasco, 1964-07-01: "En un pequeño campo de Alza nació en 1914 el atletismo guipuzcoano"
- (5) Euskomedia (Auñamendi Entziklopedia)
- (6) Album Picavea.
- (7) KUTXA FOTOTEKA
- (8) Landa-Jaka familia
- (9) Euskomedia 1915-11 (Equipo de la sociedad Jolastokieta que venció al Athletic de Bilbao por 3-0 en una de las eliminatorias del campeonato. Noviembre de 1915)
- (10) La Vanguardia 1915-07-03
- (11) El Día, 1933-07-14
- (12) El Día, 1933-07-18
- (13) Argia, 1933-07-23
- (14) El Pueblo Vasco, 1914-08-01
- (15) HERRERAS MORATINOS, Beatriz: Altza Historia y Patrimonio. Artiga Bilduma 4, Altzako Historia Mintegia (2001), 71-73 orr.

Los inicios del cross de Herrera

Herrerako Krosaren hastapena (🖨)

Crónicas antiguas 2015/01/20

El Cross de Herrera inició su andadura el 21 de noviembre de 1926, de la mano del Herrera Sport. El vencedor de esta primera prueba fue Fidel Acebal, del Lagun Artea de Errenteria, mientras que el Añorga encabezaba la clasificación por sociedades deportivas. La crónica del desarrollo de la prueba pedestre la encontramos en las páginas deportivas de la prensa de la época (Mundo Deportivo, El Pueblo Vasco, La Constancia, ABC...), en la que podemos leer que *"numeroso público presenció la carrera y a continuación de ella se procedió al reparto de premios, que fue otro éxito formidable, pues todos los clasificados recibieron premios"*. (El Pueblo Vasco, 1926-11-23)

Los corredores del Herrera Sport que participaron en la prueba fueron los federados José de Dios y Francisco Zaldúa, que llegaron en los puestos 20 y 23, respectivamente, y los "neófitos" Ángel Echeburua 24, Esteban Lacalle 31, Vicente Martínez 38, y Sánchez 42.

La primera prueba de esa temporada fue la organizada una semana antes por el Club Fortuna en Donostia y en ella también participaron los corredores del Herrera Sport; ésta viene a ser la primera noticia que tenemos del club.

Un año más tarde, el 22 de diciembre de 1927, tuvo lugar la segunda edición del cross de Herrera y en esta

ocasión Miguel Cialceta (Real Sociedad) fue el vencedor, mientras que el Lagun Artea de Errenteria se llevó el trofeo regalo de Fernando Nicolás (empresario de maderas de Herrera), trofeo destinado a equipos de cinco corredores y que para su adjudicación definitiva era preciso ganarlo dos años consecutivos o tres alternos. El Ayuntamiento de Altza, por su parte, también ofrecía un trofeo especial para el club primer clasificado en categoría de neófitos, y que quedó en las vitrinas del Herrera Sport. (ABC, 1927-12-20)

Desde entonces, la prueba se ha seguido organizando hasta la actualidad, organizada por el C.D. Herrera y con el nombre de "Cross Popular de Herrera". Antxon Segés nos lo cuenta en el artículo "El cross de Herrera" que publicó en el número 11 de *Altza, Hautsa Kenduz*.



Kutxa Fototeka

Sociedad deportiva Herrera Sport

Herrera Sport, kirol elkarte (📄)

Crónicas antiguas 2015/01/27

El Herrera Sport fue una sociedad deportiva que desarrolló su actividad entre 1926 y 1940. Especialmente dedicada al cross-country, contaba con un equipo de corredores compuesto por atletas federados y aficionados, y con el que participaba en las pruebas del calendario guipuzcoano de "pedestrismo". Además, el Herrera Sport organizó ininterrumpidamente el Cross de Herrera desde 1926 hasta el comienzo de la Guerra Civil en 1936. Al finalizar la guerra, en 1940, volvió a organizar una nueva edición del cross, que sería la última hasta que años más tarde el C.D. Herrera tomara el relevo.

En los inicios de su actividad la sede de la sociedad estuvo ubicada en la primera planta de la casa Zubipe.

J. Antonio Irigoyen, que vivió aquellos tiempos como joven corredor y más tarde fue socio fundador del C.D.



ABC, 1932-02-03

Herrera en 1947, rememora aquellos tiempos en el artículo "50 aniversario del C.D. Herrera. Algo más que un club" que escribió para el cuarto número de *Altza, Hautsa Kenduz*:

"Allá por el año 1940 se trató de volver a intentar el formar la sociedad Herrera Sport, que hasta el año 1936 practicaron el Atletismo, organizándose en Herrera las carreras pedestres, que tenían mucha solera y clase para aquellos tiempos.

Puedo citar que entonces tenían un atleta de mucha categoría, llamado Claudio Egaña y que fue campeón de España. No me acuerdo de más nombres de atletas del Herrera Sport. (Yo tenía sólo trece años). Sí recuerdo que participaron por la Gimnástica de Uliá, los Cialceta, Coll, Acebal, Iradi, etc.

Teníamos afición a este deporte y participamos en algunas carreras como "Neófitos", entre otros, Ricardo Arrieta y yo. Vestimos los colores del Herrera, (amarillo y verde). Entre los neófitos, no hicimos un papel nada más que discreto; teníamos en contra un Prudencio Ayerra que fue muy bueno, incluso cuando llegó a Seniors.

Nos quitaron las ganas de correr por culpa de descuidos de la organización que nos hicieron salir de meta, junto y al mismo tiempo, que los Junior y Senior. Nos reventaron, pues no podíamos seguir el ritmo y velocidad de ellos; así que lo dejamos.

Por unas cosas y otra el Herrera Sport desapareció. Unos en batallón de trabajadores, otros en la mili, etc."

En la "Guía Industrial-Comercial de Pasajes-Alza", publicada en 1935, encontramos una presentación de esta sociedad deportiva que nos acerca a su organización y actividad, y que dice así:

Sociedad "Herrera Sport", Plaza de San Luis, Herrera

Cuenta con treinta y seis socios, siendo su Presidente, D. Miguel Goitiandía, y el resto de la directiva los



ABC, 1931-10-06

señores D. Francisco Egusquiza, D. Nicolás Aspiroz, D. José Sesein, D. José María Iriarte, D. Fabriciano González, D. José Ortes, don Tito Arrillaga, D. Francisco Altamira y dos cargos más que se ocupan interinamente.

Esta sociedad se dedica, con especial predilección, al pedestismo y juego de bolos en general, como lo demuestra el campeonato que se hallan celebrando, calificado como campeonato de Guipúzcoa, siendo éste el sexto año que se celebra. También ha figurado en el concurso de "gurdiyas" organizado por las Sociedades "Umore-Ona" y Centro de Atracción y Turismo, alcanzando en los cinco años que han intervenido, cuatro primeros premios y un tercero, ostentando una placa-medalla del "Umore-Ona", el año 1927, calificado como Premio de Honor.

Siempre se ha distinguido organizando los festejos del barrio, contando con la subvención Municipal, y, en la actualidad, trata de organizar, con la cooperación y ayuda técnica del "Fortuna Sport, de San Sebastián, la primera travesía del puerto de Pasajes, cuyo recorrido, es aproximadamente de dos milímetros (sic), prueba que todavía no se ha realizado, contando con la colaboración de entidades de natación de la Cotte Basque, de Bilbao y de Madrid. Realizan jiras a base de enemigos de médicos que recomienden la inapetencia estomacal, toda vez que sus componentes se hallan revestidos de una capa de cemento armado, que les pone a cubierto de indigestiones.

Las fiestas de la barriada de San Luis, las celebrarán brillantemente, teniendo dispuestos catorce trofeos para los mismos.

Santa Ageda bezperako koblak gaur Herreran

Bertsoak 2015/02/04

(I)

Santa Ageda bezperan gatzoz
mirariak eskatzera
Larratzoko dorreak era_a_man
ta zelaiak eskatzera
*Herrerako San Lu_is plaza
arbolaz dena estaltzea
eta Kontxako hondartza bera
Altzaraino iristea.*

(II)

Beste zertxobait ere nahi dugu
Santa Ageda geurea
trenbide zubi erraldoi hori
kristalezkoa egitea
*Kotxen zaratak beharrean
musikatxo entzutea
Txingurri erreka ireki eta
angulekin betetzea.*

(III)

Herrera gure auzo maitea
nahi badugu hobetzea
auzolana eta elkartasuna
hori da gure bidea
*Kaletan protesta eginez
erokerien aurrean
balkoi eta lehio guztietan
ikur berdea jartzea.*

ZUMARDI KAYAK BIKOTE PIKER
NIDO ETA ELOSEGI
EGUNEROKO POTEAK KANTUZ
TA OHITURAREKIN SEGI
ALDEZ AURRETIK ESKERTZEN DEGU
DIOGU ARGITA GARBI
EZTARRIA BUSTI NAHI DEU BAINA
DIRURIK EZTA AGERI



Conocer los viveros y depósitos de agua de Ulia

Uliako haztegiak eta ur-deposituak ezagutu (📄)

Excursiones 2015/02/08

La AAVV de Ulia ha organizado para el próximo domingo 15 de febrero una jornada dedicada a conocer por dentro un sitio extraordinario que, por encontrarse en una finca cerrada, puede ser uno de los más desconocidos de Ulia. Se trata de la finca ubicada en el lugar donde empieza la carretera que sube a Ulia, en su lado izquierdo. Ahí permanecen lo que fueron las instalaciones de los viveros municipales hasta 2007, fecha en la que fueron trasladados a los terrenos del caserío Audariz en Lau Haizeta. En el mismo lugar, bajo tierra, se encuentran los depósitos de agua de Buscando y Soroborda que formaban parte del sistema de traída de aguas desde las fuentes de Mendiola a la ciudad.



Egilea: Lumina Nocte (Wikipedia)

Los que visiten esta pequeña joya de nuestro patrimonio podrán además ver el mojón número 22 que sirve de deslinde entre Donostia y Altza, y que aparece así descrito en el amojonamiento que se realizó en 1939: *“Hito de hormigón. Situación: en el paraje denominado “Viveros Municipales”, en la esquina NE. de la casa de Depósito de Aguas de Buscando y en terreno del jardín de los Viveros Municipales del Ayuntamiento de San Sebastián. Observación: al S. los caseríos de Lizardi y Zarategui. Línea de término: AR.”*

En la convocatoria añaden que aprovecharán para presentar el proyecto “Uliako Lore-Baratzak”, mediante el cual quieren que la finca vuelva a tener vida y sea un parque abierto y activo para todos.

Para las visitas se han organizado 4 grupos de 15 personas –9:30, 10:30, 11: 30 y a las 12:30– y hay que inscribirse de antemano rellenando este formulario.



22. mugaria (argazkia: Iñigo Landa)

Gracias a la AAVV de Ulia, el próximo domingo se nos ofrece una magnífica oportunidad para conocer un rincón excepcional de Ulia, tan cercano como desconocido.

Arriagako karobia

Iñigo Landa

Tokiko Bilduma 2015/02/17



Karobia Harria parkean gaur egun

Harria parkeko albo batean badago harrizko eraikin txume bat belardian kokatuta. Kubo baten itxura dauka eta hegoaldeko aldean arku moduko bat dauka, harlanduez egina. Arriaga baserriko karobiaren azken aztarna da.



Karobi etxetxea 1987. urtean



Karobia 1991. urtean

Orain duen kokapena ez da jatorrizkoa. Bere lekua errepide ondoan zegoen, etxetxo baten barruan. Inguru hori parkea bihurtu zutenean, kaleko espaloia zabaldu egin zuten, etxetxoa bota eta barruan zegoen karobia gorago eraman zuten. Argazkietan ikus daiteke karobia hiru momentuetan: beheko argazkietan, 1987. urtean Karobi etxetxoak zein egoeratan zegoen eta 1991. urtean parkeko obrak hasiak zirela nola agirian geratu zen labea, eta goiko argazkian egungo egoera.

Karobia karea lortzeko labea da. Bigarren argazkian ikus daiteke nola karobia mendi hegalean txertatuta zegoen, kareharria eta erregaia goitik sartzea errazteko, eta karea bihurtu ondoren behealdetik jasotzeko.

Karea oso erabilia izan zen baserrien zelaiak ongartzeko, hormak egiteko eta baita zuritzeko ere. Honen erabilpena XVII. mende amaieran zabaldu zen gure artean eta XX. mendeko erdialdera arte luzatu da. Altzan hiru karobiren berri daukagu, desagertu berri den Sarruetako Lasunene baserrikoa, Herrerako Peruene baserri ondoan lurperatuta zegoena, eta Arriagako hau, Lasunenekoaren oso antzekoa. Karea egiteko lehengaiak, kareharria, ugaria da Altzako zenbait ingurutan -Lardiko harrobi handia lekuko-, baina bestetan eskasago, Lau Haizeta aldean, kasu, eta horregatik Amoeder, Artzaka eta Irazuene bezalako baserrietatik Atañoako harrobietara jo behar izaten zuten harri bila, Errenteriako lurretan, Bordazar ondoan. Horrela dokumentatu daukagu 1698 eta 1899 urte bitartean.

Arriagako karobia da Altzan geratzen zaigun jardueraren horren azken aztarna. Merezi du zaintzea eta ezagutaraztea. Horregatik, behar-beharrezkoa ikusten dugu gure kultur ondarearen horrelako elementuen ondoan argibide-aula bat jartzea eta honen bitartez horren premia aldarrikatzen dugu. Harria parkea, Arriaga oinetxearen orubea, leku aproposa da, jolasleku eta pasealeku izateaz gain, desagertutako garai batera hurbiltzeko (armarria, baserria, Txirrita, karobia...) eta bere baitan gordetzen duen altxorra azalarazteko.

Rally Fotográfico por la Naturaleza de Altza

Argazki Rallya Altzako Naturatik (📷)

AltzaNatura 2015/03/01

El próximo sábado 7 de marzo, hemos organizado en colaboración con el Centro Cultural Casares-Tomasene el Rally Fotográfico por la Naturaleza de Altza. El único requisito para participar es que te guste sacar fotos con cámara digital o móvil y respecto a la edad hemos establecido dos categorías: la A para los participantes de menos de 15 años y la B para los mayores de 15 años. Las fotografías que se saquen este día conformarán la exposición que organizaremos en abril con motivo de la Semana de la Naturaleza. El sábado nos juntaremos a las 10:00 en el Centro Cultural Casares; recomendamos que los participantes se inscriban con anterioridad a esta fecha, para ello consultar este enlace. Para comenzar el Rally, a los participantes se les entregará por escrito los cinco temas relacionados con la naturaleza a fotografiar y ya podrán comenzar a realizarlas por los alrededores. A las 12:00 en Tomasene tendremos preparado un ha-



maiketako para los participantes. El Rally finalizará a las 13:30 y los participantes tendrán una semana de plazo para enviar las fotos por e-mail, a esta dirección: casares-kulturetxea@donostia.org, una fotografía por cada tema. Miembros de la Sociedad Fotográfica de Gipuzkoa seleccionarán las fotografías de la categoría A y las de la categoría B que conformarán la exposición de la Semana de la Naturaleza.

Si te gusta sacar fotos con la cámara o el móvil, animate a participar en el Rally. Para cualquier duda o recibir más información llamar al teléfono de Altzako Historia Mintegia (Maribel) 649496607.

Revista Osteguna

Osteguna aldizkaria (📄)

AA.VV. OSTEGUNA

Crónicas actuales 2015/03/11

AA.VV. OSTEGUNA Auzo Elkartea

Este año la Revista OSTEGUNA ha pretendido ampliar su información y hemos contado con la activa participación de colectivos y vecindario de Larratxo, lo que nos hace sentir que vamos consiguiendo el objetivo que nos marcamos hace unos cuantos años y nos llena de agradecimiento.

Hemos tratado asuntos de interés general que nos afectan directamente y con la misma importancia hemos recogido esas situaciones que a algunos les gusta llamar “pequeñeces” pero que para nosotros son vitales porque inciden con fuerza en nuestra vida diaria como son las reparaciones, últimamente muy raras, de aceras, semáforos, marquesinas, pasos peatonales, torretas de fuerza eléctrica, etc.



En la asociación Osteguna estamos abiertos a cualquier sugerencia, ideas, propuestas y toques de atención por parte de vecinas y vecinos, con la voluntad de participar en la mejora de un barrio como es el nuestro que siempre ha plantado cara a las situaciones sociales adversas.

Quienes nos seguís os daréis cuenta de lo complicado que resulta llevar a cabo cualquier proyecto, obra, reparación o iniciativa con el Ayuntamiento. De hecho en este número daremos cuenta de cómo van los asuntos en trámite, los que se han realizado y los que están por hacer.

La distribución de la revista se realiza mediante buzono en el barrio y se entrega también en asociaciones, algunos puntos de Herrera, Biblioteca Infantil, Casares, así como al alcalde, concejales y cargos técnicos del ayuntamiento.

25 aniversario de CEPA Herrera. ¡No te lo pierdas!

HERRERA HHI 25 urteurrena. Zatoz! (📄)



CEPA HERRERA HHI

Crónicas actuales 2015/03/25

EPA HERRERA está de cumpleaños, cumple 25 años de vida y lo quiere celebrar como se merece, **CONTIGO Y PARA TI.**

Pero, para esta fiesta de cumpleaños necesitamos, te pedimos, tu colaboración.

Sabemos que lo vas hacer, cada uno a vuestro modo y manera, pero hoy te solicitamos cosas muy concretas:

- QUE participes en los diversos actos que a lo largo de la semana del 25 - 29 de mayo haremos.
- QUE aportes fotos, documentos, de tu estancia aquí dado que una de las actividades a organizar es hacer una gran exposición retrospectiva de lo que habéis hecho, hemos hecho, construido entre todos.
- QUE colabores en la medida de tus posibilidades en todo lo que se pueda organizar.
- QUE difundas esta noticia entre el antiguo alumnado que conozcas.

Estas, son las primeras pinceladas de unos actos, que entre todos, queremos que sean entrañables.

RECUERDA: Para la entrega de material y fotos te debes poner en contacto con la profesora responsable de la Biblioteca y Actividades Extraescolares IGONE AMESTI.

AHMren batzarra

Asamblea de AHM (🖨)

Kronikak [egungoak] 2015/04/01



Joan den ostegunean, hilak 26, AHMko hogeita zazpi bazkide bildu ginen elkartearen urteko ohiko batzarra ospatzeko. Ohiko gaiak gain -joan den urteko memoria eta kontuak onartu, eta abar-, aurtengo batzarraren gai nagusia elkartearen etorkizuna izan da, iazko batzarrean hasitako hausnarketari jarraipena emanaz. Pozik gaude orain arte egindako lanarekin, baina alde batetik elkar-teak hartu duen neurria eta burutzen dituen jardueren tamaina ikusita eta, bestetik, denbora aurrera doala eta orain arte elkarte gidatu duen taldean erreiborik edo aldaketarik ez dagoela egiaztatuz, etorkizunari begira kezkaturik gaude.

Jakin badakigu arazo horrek ez daukala konponbide errazik eta gauza bera gertatzen ari dela beste elkarteetan, baina, hala ere, neurri batzuk hartu ditugu egon daitezkeen ondorioei aurre egiteko. Horrela, datorren 2016. urtea erreferentzia bat izango da AHMren ziklo berri bati ekiteko, elkartearen funtzionamendua doitu (kudeaketa eta administrazioa, bazkideak...), aktibitateak berrantolatuz (batzuk itxi, beste batzuk trinkotu edo indartu), eta auto-finantziazioa bilatu diru-laguntzen bidea alboratuz.

2016. urterako ziklo berriaren oinarriak jarri nahi ditugu. Altzaren historiaren arloan egin dugun hogeita hamar urteko bidea ez dugu alferrik galtzen utzi nahi eta aurrera begira altzatar komunitatearen zerbitzura kultur eragile -une honetan 216 bazkide dituen- izaten jarraitu nahi dugu. Gogoia eta grina baditugu.

Gure txokoan gordeak

Recogidos en nuestro txoko (🖨)

In memoriam 2015/04/10

Azken batzarreko aktan sei bazkideen bajak jaso agerituen, seiak pasa den urtean hil direlako: Mikel Arregi, Mariasun Curiel, Isabelina de los Mozos, Agustín Fermín, Ezekiel Rubio eta Martín Zabaleta. Unetxo batez behinik behin haien izenak gogoratu nahi ditugu hemen, izan ere bizirik zeudenean elkartearen lana begikoa izan zuten eta gure bidelagunak izan dira. Gurekin partekatu dituzte beraien argazkiak, idazlanak edo denbora zati bat, eta elkartearen lanari babesa eman diote.

Honekin batera agertzen den irudia Intxaurrendoko Basotxiki baserriaren argazkia da, Martín Zabaletak Altzari buruzko dokumentuen bilketarekin hasi ginenean utzi ziguna. Neguko eguzkiak argizatzen duen Basotxikiren etxe aurre horren irudia txeraz gorde eta gordeko dugu gure txokoan, beraien oroimen zatiak gurekin partekatzen jarraituko dituzten lagunen izenak bezalaxe, gure artean ez badaude ere.



Basotxiki baserria (Martín Zabaleta)

Un paso adelante

Aurrerapauso bat (🖨)

Batzuen artean / Entre varios

Opinión 2015/04/15

En el Pleno del 26 de Marzo -punto 8- se aprobó definitivamente el Reglamento Orgánico de los Distritos de Donostia, con los votos a favor de PP - PNV y PSE y en contra, de Bildu. Los primeros pasos a dar se dirigen a la formalización del Distrito de Altza. La estructura de Altza, que no ha perdido del todo su configuración funcional diferenciada, facilita este hecho. Hay que añadir a todo ello la petición desde décadas atrás, por parte de la población altzatarra de materializar de alguna forma el compromiso de Donostia en el documento de anexión.

La aplicación del Reglamento de Distritos es de obligado cumplimiento para ciudades como Donostia y aunque ha sido evidente el escaqueo de los gobiernos municipales, parece que ha llegado el tiempo de dar un paso a favor. Los que vemos con una cierta esperanza esta aplicación somos muy conscientes de que no es más que un paso, pero tampoco admite dudas de que es un paso importante, sobre todo si tenemos en cuenta los años de indiferencia y nulas acciones.

Se nos dice que es una medida artificial. Totalmente de acuerdo. Pero es tan artificial como todo límite o frontera. Pero reconocer su artificialidad, no significa que sea negativo. Mucho más natural es un barrio –si se puede hablar así– pero ello no ha impedido que el gobierno municipal en manos de Odón Elorza y la posterior aprobación del actual gobierno municipal, con la asistencia de varios técnicos, hayan decidido una nueva concepción de barrios, sin consenso con la ciudadanía, rompiendo la convivencia en dos e incluso tres partes, haciendo desaparecer en el mapa oficial muchos barrios altzatarra de manera totalmente artificial, sin tener en cuenta sentimientos de pertenencia, convivencia, vecindad, ni acceso a servicios.

Pero ¿para qué sirve un distrito? En Altza estamos ahora ante un reto y al mismo tiempo una oportunidad para acercar nuestras inquietudes, nuestras preocupaciones, a los foros de decisión para hacernos valer en términos de igualdad. Hay que tener en cuenta el avance que supone poder contar con un ente jurídico-administrativo compuesto por representantes vecinales y políticos que va a poder decidir sobre una parte significativa del presupuesto para pensar en nuestro desarrollo urbanístico –el 10% de inversiones– en nuestras necesidades y en soluciones que, además de ser atendidas, podamos extrapolar al resto de la ciudad y a los pueblos colindantes al nuestro, y no al revés, como está pasando ahora.

No será gran cosa, pero es algo. Si esto no funciona en el futuro que no sea por nuestra falta de iniciativa y de compromiso. De ser así, no podremos quejarnos y lamentarnos por haber perdido la oportunidad de trabajar por y en nuestro pueblo.

Altza, a 14 de Abril 2015
OSTEGUNA-LARRATXO, ELKARTASUNA-
SANTA BARBARA, Pello Arrieta Yarza, Alberto
Rodríguez Bardón, Iñigo Landa Ijurko, Elena
Arrieta Yarza, Eurne Mendinueta Entenza, Jon
Serrano Gamaza

Altzako Naturaren III. Astea

III. Semana de la Naturaleza de Altza

AltzaNatura
2015/04/19



Enrique Quintans

Elena Arrieta Yarza

In memoriam 2015/04/29



Enrique, primero por la izquierda, en fiestas de Herrera de 1962

Ante un papel en blanco, trato de reflejar la vida de un vecino y amigo, bueno, tranquilo, Enrique Quintans, que acaba de fallecer. Persona de referencia, llena de anécdotas y recuerdos de la vida en Herrera y por extensión en Altza, de los últimos sesenta años. Su afición a la lectura histórica y a las publicaciones de Altzako Historia Mintegia aportó detalles de valor. Muchos de esos recuerdos y anécdotas se los lleva Enrique porque en este presuroso mundo de ahora, no tenemos la suficiente paciencia ni destinamos el tiempo que merece a escuchar a estas personas que tienen tanto que contarnos sobre nuestro pasado inmediato, que nos ayudan a comprender el presente.

Sus orígenes gallegos, a los que siempre ha sido fiel, han armonizado con la vida altzatarra y ha sido un ejemplo de convivencia. Nos deja su mirada interrogante siempre y esa parsimonia que tenía al expresarse. Y a algunos de nosotros nos deja un poco más solos.

Joan Mariren eskutik

“Txantxanberde kantaria”

Notiziak 2015/05/06

Joan Mari Irigoien idazle altzatarrak ‘Txantxanberde kantaria’ liburua atondu berri du eta datorren maiatzaren 14n, arratsaldeko 7:30ean, Tomasenen egingo du aurkezpena.

Liburua berak editatua da eta altzatarrei eskainia. Horren kariaz Altzako zenbait eragilek, elkarte zein adiskide, liburuaren aurkezpenaz baliatu nahi dugu Joan

Mariri gure aitortza eskaintzeko.

Juan Ramon Makuso arduratuko da “Txantxanberde kantaria”ren aurkezpena egiteaz eta, segidan, Koldo Izagirrek eta beste zenbait herrikidek hitza hartuko dute Joan Mariri, adiskide, herrikide eta euskal idazle gisa merezi dituen hitzak entzun dituzan. Imanol anaiak, bestalde, liburu honentzako prestatu dituen azal ezberdinak erakutsiko ditu ekitaldiaren aretoan.



Ekitaldi herrikoia izatea nahi dugu, xumea bezain beroa, eta, horregatik, gonbidatu nahi zaituztegu gurekin batera ekitaldian parte hartzera.

+55 Caminos desde Altza 2015

Aurtengo +55 ibilaldiak

Excursiones
2015/05/18



Joxepi Atorrasagasti

Elena Arrieta Yarza

In memoriam 2015/05/24



‘Kontzejua’ eta ‘Hiria’ hitzen aldarrikapena [I]

Iñigo Landa

Iritziak 2015/06/03

Argazkia: San Telmo Museoa



Orain dela sei urte Altzako udaletxearen etxaurrean “Plaza de San Marcial - Villa de Alza” eta horren azpian ezustean agertu zen “Plaza del Concejo” plakak kendu zituen Donostiako udalak, eta San Telmon gorde. Plaka



Plakaren kokapen berria eta informazio-aula



berriro bere lekuan uztea eskatu genion orduko udal gobernuari, –alferrik–, eta 2011n eskaera berriro egin genion hauteskundetatik sortutako udal gobernu berriari. Lau urte ondoren plaka udaletxeko etxaurrera itzuli da. Alabaina, itxuraz, zegoen lekuan uztea nahikoa ez, eta kokapen berri bat bilatu diote eta azpian udaletxeari buruzko informazio-aula jarri dute, lau hizkuntzatan idatzita. Euskarazko testua irakurrita, kokapen berria ez ezik, badirudi esanahi berria eman nahi izan diotela plakari, non “Kontzeju” eta “Altzako Hiria/Herria” hitzak, –plakak jasotzen dituzten gako-hitzak, hain justu–, baztertu dituzten. Horiek ez dira, ez, hitz hutsalak, eta dute esanahiaren gaurkotatua aldarrikatu dugu hemen.

Aurretik, ‘Kontzeju’ hitzarekin hasiko gara eta ‘Hiria’-rekin hurrengo batean jarraituko dugu.

Kontzejua erakunde politikoa da, herritarren interesak aztertzeko eta defendatzeko osatua. Zinegotzi taldeak osatzen du. Kontzeju hitz bera udaletxea izendatzeko erabiltzen da. Altzak kontzejua izan du Erdi Arotik frankismoaren garaipenera arte; eta frankismoaren ondoko gobernu donostiarrek inposaketa hura mantendu dute, Altza eskumenik gabeko auzo moztukatuaren izaera egonkortuz.

Kontzeju altzatarren sorrera ederki aztertu zuten Juan Carlos Mora eta David Zapiain historialariek *Altza. De los cubilares al concejo. Formación y características del régimen jurídico-político altzatarra* ikerketan eta beste behin irakurtzea merezi duena. Hemen, dokumentuetatik hartutako erakusgai batzuk gogoratu baino ez dugu egingo:

- 1390. urtean, Estibaus izeneko zelaian, -egungo San Martzial plazan, alegia-, eliza eraikitzeke erabakia hartzeko bildu ziren. Honela dio agiriak: *"aiuntados en el campo de Estibaus segun que lo havemos de uso de costumbre de nos juntar"*.
- 1552. urtean, eliz ondoko hilerrian bildu zen kontzejua: *"aiuntados en nuestro conçejo e aiuntamiento en el cimiterio de la Iglesia de señor San Marçal"*.
- 1620. urtean, *"bazarre"* euskal aldaera agertzen zaigu kontzejuaren esanahiarekin: *"en nuestro bazarre y aiuntamiento"*.
- 1764. urtean Kontzejuaren etxearen aipamena aurkituko dugu, *"Casa Concejil"*.
- 1844. urtean udaletxearen beste aipamena, honela idatzita: *"Casa Consistorial de la Población de Alza"*.
- 2009. urtean, udaletxearen etxaurrea txukuntzen ari zirela, eguzki-erlojuaren behealdean zegoen *"Plaza de San Marcial - Villa de Alza"* esaten zuen plakaren azpian, *"Plaza del Concejo"* jartzen zuen beste plaka bat aurkitu zuten. Biak kendu zituzten eta udaletxea plakarik gabe egon da martxora arte, ezagutzen genuen plaka etxaurrean jarri duten arte. Kontzejua aipatzen duena, San Telmon jasoa geratu da. Egungo udaletxearen eraikuntzaren data zehatzik oraingoz ez daukagu, baina burdinazko balkoian jartzen duen datari kasu egiten badiogu, eraikina 1889. urtekoa litzateke eta agian urte hartan jarri zuten plaka eguzki-erlojuaren behealdean.

Data horietan guztietan, Donostiako jurisdikziopean egonda ere, altzatarrek ahalmena eta tresna juridiko-politiko izan dute bere interesak defendatzeko eta erabakia hartzeko. Garai horietan guztietan altzatarrek motiboak bazeuzkaten beraien administrazioa aldarrikatzeko; eta egungo altzatarrek ere bai. Kontzeju hitzak gure egungo aldarrikapena Historian errotzen du.

Altza industria eta merkataritza urtekarietan (1879-1911)

Los inicios de la actividad industrial y comercial (1879-1911) (🖨)

Tokiko Bilduma 2015/06/17



Informazio-taula

Duela gutxi, Espainiako Biblioteka Nazionalean eskuragarri dauden **industria eta merkataritza urtekariak** gehitu ditugu Tokiko Bildumaren datu-basean. Urtekari-saila 1879-1911 urte bitartekoa da eta urte batzuen falta badira ere -1889tik 1894ra, eta 1908. urtekoa-, bildutako sortak aukera paregabean eskainiko digu Altzan garai hartan bizitzen ari zen eraldaketara hurbiltzeko, inguruko herrietan gertatzen ari zen antzean.

Denbora tarte hartan, Altzaren biztanleria nabarmen handitu ze, 1879. urtean 1.230 biztanle edukitzetik 1905. urtean 2.103 biztanle edukitzera pasa zen, 873 biztanle gehiago, alegia. 1935. urtean 4.050 izango dira.

Urtekarietan agertzen diren zerrendetan lanbidea eta jarduera hori egiten duen pertsonaren izen-abizena agertzen da, eta eskaintzen digun informazio horretatik atzeman daiteke merkataritza-industria jarduerak Altzan edukitzen ari ziren sustapena, ordura arte baserria nagusia zen eremuan. Bi momentu azpimarratuko genituzke. Lehenengoa 1894. urtearen inguruan koka dezakegu. Urte hartan, hautesleen erroldak erakusten digunez, altzatarren erdia agertzen da *"nekazari"* gisa eta beste erdiak bigarren eta hirugarren sektoretan lan egiten du. Lehenengo tarte horretan lanbide gutxi agertzen dira urtekarietan: errementari, mediku, errota-ri (irina), gurdigile eta ardandegi. Hortik aurrera, ordea, zerrenda luzatuko da: maisu, abokatu, igeltsero, harakin, zurgin, dendari, erlijio-komunitate, notario eta tabernari. Urteak pasa ahala jardueren zerrendak handitzen jarraituko du: kafetegi, janari-denda, itsaso-arte-kari, perratzaile, eskuila-lantegi, ardoak eta sagardoak, oihalgintza, eta itsasoaz haraindiko produktu denda.

1904. urtetik aurrera bultzada handiagoa izango da: kafegile, hargin, drogeria, ontzi zilindrikoen lantegi, likore lantegi, industrialari, jostun, tabernari, upelgile, al-

baitari, argindarra lantegi, botikari, burdindegia, txikoria lantegi, upa-ohol lantegi, upelgile, posta eta telegrafo, olio biltegi, ikaztegi, arotzeria metaliko, ikastetxe partikularrak, ardo biltegi.

Industria eta merkataritza jardueren gehitze hau komunikabideen ondoan gertatuko da, errepide nagusiaren eta trenbidearen ondoan, Molinaotik Intxaurrondoraino, Buenavista eta Herrera tartean, baita Sarruetan ere.



Anuario Riera, 1905

Herrera en fiestas

Elena Arrieta Yarza

Opini3n 2015/06/19



Esta mañana, he estado observando a Javi Mujika preparando las banderas para las Fiestas de este ańo, mientras Iñaki Olaziregi iba y venía haciendo la compra para preparar las comidas para los grupos de la Euskal Jai, de los partidos de pelota, de bolos, de todo lo que se mueve en fiestas. Me daba cuenta de qu3 importante es para la vida de Herrera contar con personas así. No son los ńnicos, es verdad, hay varios que me dejo en el tintero pero estos dos son la mejor muestra de una convivencia intergeneracional que sale así, con naturalidad, del pueblo.

Iñaki nos enseñaba también la cocina de 3poca que ha montado en el escaparate de la peluquería-barbería de Luis del Castillo, un reciente vecino en Herrera. El detalle de este vecino, el inter3s de Iñaki, el mimo con el que se hacen estas cosas los d3as previos a las fiestas, no tiene precio porque se consigue despertar la curiosidad y el sentimiento de formar parte de algo. Luego, durante las fiestas, todo el mundo se divierte, censura, aprueba, algunos –y algunas– hablan con añoranza de *¡entonces sí que eran fiestas!*, sin darse cuenta de que ahora los que hemos cumplido ańos, no somos los de antes. Pero ahora se diga lo que se diga, se hacen fiestas y se hacen bien; alguien se esfuerza y mucho por mantener vivos nuestros barrios, nuestro Pueblo y qu3 menos que ser agra-

decidos. No se pide m3s que formar parte de la fiesta, aguantar un poco el ruido y disfrutar. Pocos ofrecer3n tanto pidiendo tan poco.

Tengo que decir que me gusta ver a las generaciones m3s j3venes disfrutar, cada una a su manera, con la presencia transversal de los no tan j3venes. Y Jabitxu, Iñaki y tantos otros –y otras–, demuestran c3mo se es parte de una sociedad que merece la pena, sin que ninguna instituci3n nos diga c3mo tenemos que portarnos. El que quiera puede ver en el ambiente de las fiestas de los barrios altzataras convivencia, solidaridad, empatía, vecindad, colaboraci3n, todo ello con buen humor y alg3n que otro complicado “toque” que tambi3n es parte del d3a a d3a.

Uliari buruzko inkesta

Encuesta sobre Uliar (📄)


Marko Sierra

Iritziak 2015/06/25

Gure erakunde publikoen Uliako Plan Bereziaren elaborazioa dela eta, ULIAKO AUZO ELKARTEAK Uliako eremuari eragina dioten hainbat arloei buruz AHMren bazkideei ere galdetu behar zaiela uste du, izan ere eremu hau altzatarrok bihotzean daramagu eta askotan erabiltzen dugu.

Hau dela eta, jarraian azaltzen diren galderei erantzuna ematen animatu nahi zaituztegu. Aldi berean, esan nahi dizuegu, galdetegi hau betetzen dutenen artean, Uliako Mirador jatetxean bi pertsonentzako bazkari bat zozketatuko dugula. Erantzun guztiak ebaluatuko dira eta erakunde publikoei bidaliko zaie. Erantzuteko hau bete eta emailez bidali edo Casares kultur etxean utzi AHMren izenean.

ANIMO galdetegian parte hartzeko eta ZORTE ON bazkarirako!!!!



San Martzial eliza berriaren mendeurrena

Centenario de la nueva iglesia de San Marcial (🖨)

Kronikak [egungoak] 2015/06/30

San Martzial parrokia egungo elizaren mendeurrena ospatzen ari da egun hauetan. Orain dela 101 urte gaurko egunean jarri zuten eliza berriaren lehen harria eta hiru urte beranduago San Martzial egunean ere inauguratu zuten festa giroan. Lanen hasiera gogoratzeko erakusketa xume bat prestatu dute elizako alboko kaperan argazkiak eta lanekin loturiko zenbait dokumentu erakutsiz. Eliza berriaren eraikuntza biztanleria eta ekonomia arloetan Altza garai hartan ezagutzen ari zen hazkuntzaren adierazgarria da.



Antzinako eliza (R. Picabea: Album gráfico-descriptivo del País Vascongado: 1912-1915)



Eliza berriaren lehen harria jartzea (R. Picabea: Album...)



Antzinako elizaren aldarea (Azpeitia familia)



Eliza berriaren inaugurazioa, 1917 (Kutxa Fototeka)



Martillunetik plazara
(Kutxa Fototeka)

'Kontzejua' eta 'Hiria' hitzen aldarrikapena [eta II]

Iñigo Landa
Iritziak 2015/07




Altzak independentzia eskuratu ondoren, "Villa" titulua lortzeko trami-teak hasi zituen Madril-en eta baita lortu ere 1910. ur-tean. Orduz geroztik "Villa de Alza" erabiliko du Altzako udalak nonahi: armarrian, zigiluetan, herri lanetako proiektuetan..., eta plazako plakan ere bai, "Plaza del Concejo" plakaren gainean "Plaza de San Marcial - Villa de Alza" plaka jarritz. Izan ere, "Población" izatetik "Villa" izatera igarotzea ohore handiagoko kontu bat da. Altzari independentzia kendu ziotenean ohore hori baino ez du iraun azken 75 ur-teetan "Altza Herria" moldearen erabileran, eta, sinbo-lismoan trabatuak geratzeko arriskuaz jabeturik, merezi du Altzaren ikur honen esanahian barrentzea eta egu-neratzea.

Ahalegin horretan, galdera hauekin egiten dugu topo: Zer esan nahi du "villa" hitzak? Zein da euskaraz-ko aldaerarik egokiena? Zergatik aldarrikatu ikur honen erabilera?


Jatorriz, erromatarrek 'villae' hitza erabiltzen zuten landa eremuan zegoen etxalde edo propietate bat izen-datzeko, normalean jabearen izenari lotua. Garai hartako toponimoak Euskal Herrian aurkituko ditugu euska-razko 'huri' eta 'hiri', edo gaztelaniazko 'villa' osagaiekin.

Erdi Aroan, 'villa' hitza erabiltzen zuten erregeek sortzen zituzten hiriak izendatzeko, hala nola Gipuz-koan Villafranca (Ordizia), edo Villa Nueva de Oiarso (Erreterria). Euskaraz 'villa' hauei 'hiribildu' esaten die-gu, eta hitz modernoak bada ere, onarpen zabala dauka historialarien artean harresi batez mugaturik bildutako hirigune pribilegiatu bat izendatzeko.

"Fiestas patronales", 1933



Herrerako lur-azpiko pasabidea



Gaceta de Madrid, 1910-02-24

Alabaina, denbora pasa ahala eta beste titulu-ekin gertatu zen bezala, jatorrizko esanahia ahaztua geratu zen eta titulu soila geratu zen, ohorezko izendapena alegia, Altzak eskuratu zuen garaian zen bezala. Tituluak herri baten entitatea handitzera dator, ez daukaten herriekin alderatuz.

Udalak kendu zuen plaka berriro udaletxeko etxau-rran jarri dutenean azalpentxo bat jarri dute informa-zio-taula batean, baina gaztelaniazko testuan 'Villa de Alza' aipatzen badute gure hizkuntzan ordea ez da ho-rrren aztarnarik agertzen; eta ez dakigu zergatik. "Altza-ko udaletxe zaharra" eta "antigua casa consistorial de la Villa de Alza" ez baitira gauza behera. Badakigu Altzako udal batzarrak garai horretan euskaraz egiten zirela -eta horretaz kexuren bat agertu zen prentsan-, baina ez da-kigu 'villa' esateko euskaraz nola esaten zuten.

